

**Iñaki Múgica Flores Lasarte-Oriako Udaleko Alkatetzaren kabineteburuak egindako txostena.**

GAIA:	Auzoen Aholku-Batzordearen Erregelamendua lantzeko kontsulta-prozesuari buruzko txostena.
TXOSTENAREN DATA:	2019ko otsailaren 11
TXOSTEN zk.:	08/2019

Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Legeak herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzko 133 artikuluan ezartzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua egin baino lehen kontsulta publiko bat egin beharko da.

Lasarte-Oriako Udalaren Zerbitzu Sozialak departamentuak eskatuta, eta Auzoen Aholku-Batzordearen sorrera arautzeko erregelamenduaren prozesua abian jartzeko beharra ikusita, prozesu hau irekitzeko eskatu da. Horretarako, udalaren webgunean parte hartzeko prozesu bat ireki zen, otsailaren 8ra arteko epea emanaz herritarrek beren proposamenak udalari helarazteko, honela egin zezaketelarik:

- Idatziz, Udaleko Erregistroan idatzi bat aurkeztuz.
- Bide telematikoaz, Herritarren Parte-hartzearen atalaren bitartez.
- E-maila bidaliz helbide elektronikoko honetara: partehartzea@lasarte-oria.eus.

Irekitze hori prentsari komunikatu zitzaion, urtarrilaren 9an bidalitako ohar baten bidez, Lasarte-Oriako herritar guztiengana hobeto zabaltzeko xedez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta egiaztatu ahal izan dugunez, **ez da ekarpenik jaso** horretarako irekitako bideetatik, eta hori Zerbitzu Sozialak departamentuari jakinarazten zaio, erregelamendua lantzeko eta onesteko prozesua jarrai dezan.

Iñaki Múgica Flores
Alkatetzako kabinetea